BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

6239

AGINDUA, 2011ko azaroaren 8koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan «Urki Fundazioaren» estatutuetako 25. artikuluaren aldaketa inskribatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskabidearen espedientea ikusi eta aztertu da. Hona hemen:

AURREKARIAK

Lehenenegoa.– 2011ko ekainaren 29an, Justizia eta Herri Administrazio Sailean, Miren Dobaran Urrutia andreak aurkeztutako idazkia jaso zen, eta bertan zera eskatzen zen: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskriba zedila fundazioaren estatutuen 25. artikuluan egindako aldaketa. Eskabide-idazkiarekin batera honako eskrituraren kopia baimendua aurkeztu zen: Areeta-Getxoko Mariano Javier Gimeno Gómez Lafuente notarioaren aurrean egiletsitakoa, 2011ko apirilaren 5ean, 858 protokolo-zenbakiarekin.

Bigarrena.– Aipatu idazkiaren bitartez, publiko egiten da Fundazioaren Patronatuak 2010eko abenduaren 7an hartutako Erabakia, Fundazioaren estatutuen 25. artikulua aldatzeko zena.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta ondoren, erabaki-proposamena egin dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak eman behar du, agindu bidez, estatutuak aldatzeko espediente honi buruzko ebazpena, honako lege-xedapen hauetan hala ezarrita baitago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari buruzko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Lehendakariak 2009ko maiatzaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen 4/2009 Dekretuaren 9.1.e) artikuluan; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeari buruzko abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4.1 artikuluan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak; aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Aipatu manuak eta aplikagarriak diren gainerako arauak ikusita, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Erandioko (Bizkaia) «Urki Fundazioa» Fundazioaren estatutuetako 25. artikuluan egindako aldaketa onartzea.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutu-aldaketa hori inskribatu dadila agintzea, agindu honen data duela, eta 2011ko apirilaren 5ean Mariano Javier Gimeno Gómez Lafuente notarioaren aurrean (protokolo-zenbakia: 2011) egiletsitako eskritura publikoan ezarritakoari jarraituz. 858).

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 8a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.